

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2016/17

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25948 - Justizia Administrazioa eta Gizarte Langintza

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Justizia Administrazioa gatazkak konpontzeko sistema gisa. Jurisdikzio desberdinen ezagutza. Justiziarekin kooperatzeko dauden zerbitzu psikosozialen ikuspegitik sistema penalarri hurbiltze bat, bereziki Gizarte Langileek arlo horretan izan dezaketen parte hartze aukerak aztertuz.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

- 1.- Gizarte harremanen erregulazioan zuzenbideak duen funtzioa ezagutzea eta gatazkak konpontzerako garaian Justizia Administrazioak duen funtzioa ezagutzea.
- 2.- Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratiko baten printzipioak ezagutzea eta hauetatik pertsona eta taldeen eskubideen defentsan erabili daitezkeen irizpideak ateratzen jakitea.
- 3.- Testu juridikoak irakurri, laburtu, eta aztertzen jakin. Oinarriko kontzeptu juridikoak egoki erabiltzen jakin, lan profesionalean komunikatzeko lanabes egoki bat bezala.
- 4.- Gatazken konponketan, arazoaren oinarriko elementuak identifikatzen jakitea, konponbidea bilatzen aldera alde juridikoa ere aintzat hartzen laguntzea, eta erabaki egoki bat hartzen jakitea ondorio guztiak baloratzeko gai izanik.
- 5.- Justiziaren erabiltzaile diren eta egoera zaurgarrian dauden Justizia Administrazioaren erabiltzaileen oinarriko eskubideen ezagutza (arriskuan dauden adin-txikikoak, delituan biktimak, espetxeratuak, inputatuak...) eta ongi bereizten du beste profesional batzuek hauekin duten interbentzioaren eremua.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

ANECAK onarturiko edukien deskribapena:

Juztizia Administrazioa eta Gizarte Langintza: Diziplinarteko taldeak edo psiko-sozialak. Administrazio Justiziaren antolaketa eta funtzionamendua: jurisdikzio desberdinak.

Atxilotuentzako laguntza: Atxiloketa. Behin-behineko espetxeratzea eta beste behin-behineko neurri batzuk. Prozedura penala. Delitua eta ardura penala.

Biktimentzako laguntza: Denuntzia. Delituan biktimen eskubideak. Ardura zibila.

Exekuzio penalean eman daitezkeen laguntza: zigorrak. Segurtasun neurriak. Espetxeratzean alternatibak.

Bitartekaritza penala: Lehengoratzeko justiziaren eredu berriak. Konponketa zigorraren aurrean.

Espetxeetako Gizarte Laguntza. Espetxeak. Tratamendu graduak. Espetxeen analisi kritikoa. Birgizarteratzea.

Talde psikosozialak: Parte hartzea familia prozesuetan. Arrisku egoeran dauden adin-txikikoan babesa. Adin-txikiko arau-hausleekin nola jardun.

Aurretik adierazitako edukiak garatzen diren PROGRAMA:

I.gaia.- JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ETA GIZARTE LANGINTZA: SARRERA

1. Estatuaren antolaketa. Funtzio jurisdikzionala.
2. Justizia Administrazioaren antolaketa eta funtzionamendua: Jurisdikzio ezberdinak. Prozedura judiziala.
3. Gizarte langintza justizia administrazioan. Epaitegietako lantalde psikosozialak eta justiziarekin lankidetzako zerbitzuak Euskal Erkidego Autonomoan.

II.gaia.- GIZARTE LANGINTZA ETA SISTEMA PENALA.

1. Justizia Administrazioaren eskema orokorra.
2. Prozedura penala.
  - a. Hasiera: Denuntzia, kereila.
  - b. Atxiloketa. Atxilotuaren eskubideak. Habeas Corpusa.
  - c. Behin-behineko espetxeratzea. Beste behin-behineko neurri batzuk.
  - d. Prozedurako partaideak. Instrukzioa.
  - e. Ahozko epaiketa.
  - f. Sententziaren helegiteak.
3. Biktimaren Arretarako Zerbitzua.

III.gaia.- ZUZENBIDE PENALAREN SARRERA.

1. Zuzenbide penal kontzeptura hurbiltze bat.
2. Zuzenbide penalaren edukia.
3. Zuzenbide penalaren helburuak.
4. Estatu sozial eta demokratikoaren markoan Estatuaren zigortzeko ahalmenaren auresuposamenduak.

- a. Legezketasun printzipioa.
- b. Gutxienezko esku hartzearen printzipioa.
- c. Erruduntasun printzipioa.
- d. Proportziokotasun printzipioa.
- e. Zigorren gizatasun printzipioa eta zigortuaren birgizarteratze printzipioa.

**IV.gai. - ERANTZUNKIZUN PENALA: DELITUAREN KONTZEPTUA.**

1. Delituaren elementuak.
  - 1- Tipikotasuna.
  - 2- Zuzenbide-kontrakotasuna. Bidezkotze kausak.
  - 3- Erruduntasuna eta egozpen pertsonala.
2. Zigorgarritasuna: ondorio juridikoak.
3. Delituaren garapen gradua.
4. Egiletza eta partaidetza.
5. Inguruabar aldarazleak.

**V.gai. - DELITUAREN ONDORIOAK: ZIGORRAK ETA BESTE ONDORIO JURIDIKOAK.**

1. Zigor kodean dagoen zigor-sistema.
  - 1- Zigor askatasun gabetzaileak.
  - 2- Beste eskubideen gabetzaileak.
  - 3- Isuna.
2. Zigorrek zehazteko arauak.
3. Zigor askatasun gabetzailea baldintzapean etetea.
4. Zigor askatasun gabetzailea ordezkatzeko.
5. Segurtasun neurriak.
6. Ondorio erantsiak.

**VI.gai. - LEHENGORATZE JUSTIZIA.**

1. Sistema penalaren funtzionamendua eta beste aukera batzuk.
2. Bitartekaritza Penalerako Zerbitzua.

**VII.gai. - ESPETXEA.**

1. Espetxe zigorren helburua: Birgizarteratzea?
2. Kontzeptu batzuk: Espetxeak. Graduak. Diziplina erregimena. Komunikazio eta baimenak.
3. Espetxeetako gizarte langintza.
4. Espetxeetako egoeraren analisi kritikoa.

**VIII.gai. - JUSTIZIAN GIZARTE LANGINTZAK ESKU HAR DEZAKEEN BESTE ALOR BATZUK**

1. Ekipo psikosozialak.
2. Arriskua baloratzeko unitatea emakumeen aurkako indarkeria kasuetan.

**METODOLOGIA**

Esposizio bidezko metodologiaz gain, ariketa praktikoak erabiltzen ditut. Egiazko kasuen azterketa ere egiten dut.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) %

#### **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluazio bi sistema daude.

1.- Ebaluaketa jarraia:

A) Idatzizko azterketa: %70.

Galdera motz eta garatzeko moduko galderak izango ditu.

Ikasgelan landuriko eduki kontzeptualak menperatzea eta ikasleen hausnarketarako gaitasuna baloratuko da.

B) Kasu praktikoen gaineko lana: %30.

Hauen bitartez, hamar puntutik 1 eta 3 artean eskuratzeko aukera izango du:

- Kasu praktikotara joan eta parte hartzen duenak.
- Kasu praktikoei buruzko txostenak idatziz aurkezten dituenak.

Ikasleak klase praktikoetan agindutako lanak egin beharko ditu astero. Hauek ikasgelan zuzendu edota komentatuko dira. Zuzenketa hauek eginda, klase bukaeran lanak irakasleari emango zaizkio; ez da beranduago aurkeztea onartuko eta ez dira onartuko eskuz aurkezturiko lanak.

Txostena edo lana kopiatua bada edo bat baino gehiagoren artean egin bada, ez du balioko, zuzendu edo osatu gabe entregatzen bada erdia puntuatuko zaio; klasera etortzen ez denak hau hasi aurretik aurkezten badu, erdia puntuatuko zaio.

Balorazio orokorra, agindutako praktika kopuruaren arabera izango da (praktika guztien batz bestekoa egingo delarik).

2.- Norbaitek klase praktikoetara arrazoi justifikaturen bategatik etortzerik ez baluke.

Besteen idatzizko azterketa bera egin beharko du.

Zati praktikotari dagokion %30a, 1etik 3rtereko puntuak, irakasleak aginduriko lan bat eginaz eskura ditzake, beti ere 7. astea baino lehen irakaslearekin hitz eginez zehaztuko dira honi buruzkoak.

&#8226; Oharra: Froga finala(idatzizko azterketa), irakasgaiaren nota osoaren %50 baino gehiago denez, deialdiari uko egiteko, azken frogara ez aurkeztearekin nahikoa da. Kalifikazioa: EZ AURKEZTUA izango da.

3.- Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako &#8220;Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua&#8221; dela medio (ikus web gunea).

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluaketa jarraian zazpi baina kalifikazio altuagoa duten ikasleei, nota hori ez ohiko deialdian kontutan hartuko zaie. Ebaluaketa jarraitua gainditu ez dutenek eta aurkeztu ez direnek azken azterketa bakarra izango dute.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Zigor Kodea, eguneratua.

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

##### **OINARRIZKO MATERIALAK**

¿ LANDA GOROSTIZA, J-M., Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak (Zati Orokorra eta Zati Berezia), Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2003 (225 orr.) [Euskal Herriko Unibertsitatearen Web orriaren bitartez eskuragarri].

¿ LANDA, J-M./LOBERA, A./SAINZ DE ROZAS, R./URRUTIA, A./URRUTIA, E., Zigor kodea. Código Penal, Deustuko Unibertsitatea/IVAP-HAEE, Bilbo, 2. argitaldia, 2004.

¿ MUÑOZ CONDE/GARCIA ARAN, Derecho penal. Parte general, Valentzia, 2010.

¿ DIEZ RIPOLLÉS, Derecho penal español Parte General en esquemas, Valentzia, 2007.

¿ GARCIA-PABLOS, Derecho penal. Introducción, Madril, 2002.

- ¿ GARCIA-PABLOS, Tratado de Criminología, Valentzia, 1999.
- ¿ GRACIA MARTIN, et alter, Lecciones de consecuencias jurídicas del delito, Valentzia, 2004.
- ¿ LANDA GOROSTIZA, ¿1995.eko Kode Penal berriaren balorazio orokorra¿, ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira), 1996, O zenbakia., 75-89 orr.
- ¿ LANDA GOROSTIZA, ¿Adingabea zuzenbide penalaren aurrean: 5/2000 Lege Organikoarekiko hurbilketa kritikoa¿, ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira), 2002, 9 zenbakia., 25-39 orr.
- ¿ LANDA GOROSTIZA, ¿Unibertsitatearen zeregina legegintza euskaldunean: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa¿ Eleaniztasuna eta teknika legegilea. Plurilingüismo y técnica legislativa, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco argitaratzailea, Vitoria-Gasteiz, 2001, 237-246; baita ere ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaira), 2001, 8 zenbakia., 93-98 orr.
- ¿ MAPELLI CAFFARENA, Las consecuencias jurídicas del delito, Madril, 2011.
- ¿ MIR PUIG, Derecho penal. Parte general, Bartzelona, 2008.
- ¿ ORTS BERENGUER, et alter, Compendio de Derecho penal Parte General, Valentzia, 2008.
- ¿ QUINTERO, et alter, Comentarios al Código penal. Tomos I, II y III, Iruñea, 2008.
- ¿ TAMARIT SUMALLA, et alter, Curso de Derecho penitenciario, Bartzelona, 2005.
- ¿ ZUGALDIA ESPINAR, Fundamentos de Derecho penal. Parte general. Las teorías de la pena y de la ley penal, Valentzia, 1993.

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

#### **Aldizkariak**

ELERIA (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria)

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://testubiltegia.ehu.es/>

#### **OHARRAK**